

METODOLOGIA

BERRITZAILEAK

HAUR HEZKUNTZAN

IRALE-Gasteiz

R-400

2015-2016

ANA RODRÍGUEZ

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	4
1.1. PROIEKTUAREN XEDEA	4
1.2.HAURTZAROAREN ETA GAUR EGUNGO HEZKUNTZA-SISTEMAREN INGURUKO GOGOETA.....	4
2. PEDAGOGIA BERRITZAILEAK	8
2.1. WALDORF PEDAGOGIA	9
◆ WALDORF PEDAGOGIAREN OINARRIAK.....	9
◆ NOLAKOA DA EGUNA WALDORF ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?	12
2.2. MONTESSORI PEDAGOGIA	13
◆ MONTESSORI PEDAGOGIAREN OINARRIAK	14
◆ NOLAKOA DA EGUNA MONTESSORI ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?	16
2.3. REGGIO EMILIA PEDAGOGIA.....	17
◆ REGGIO EMILIA PEDAGOGIAREN OINARRIAK	17
◆ NOLAKOA DA EGUNA REGGIO EMILIA ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?	18
2.4. EMMI PIKLER PEDAGOGIA	19
◆ EMMI PIKLER PEDAGOGIAREN OINARRIAK.....	20
◆ NOLAKOA DA EGUNA PIKLER ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?	22
2.5. ALEXANDER S. NEILL	22
◆ NEILL PEDAGOGIAREN OINARRIAK	23
◆ NOLAKOA DA EGUNA SUMMERHILL ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?	24
3. APLIKAZIO PRAKTIKOA AURRERA ERAMATEKO IRADOKIZUNAK.....	25
3.1. WALDORF	25
3.2. MONTESSORI.....	27
3.3. PIKLER	30
3.4. REGGIO EMILIA	32
4. ESPERIENTZIA BERRITZAILEAK EUSKAL HERRIAN	33
4.1. ARABA	33
4.2. BIZKAIA.....	34

4.3. GIPUZKOA.....	35
4.4. NAFARROA.....	36
5. AZKEN ONDORIOAK	38
6. BALIABIDE GOMENDAGARRIAK: WEBGUNEAK ETA LIBURUAK.....	39
7. BIBLIOGRAFIA	41

1. SARRERA

1.1. PROIEKTUAREN XEDEA

Egun hezkuntza-sisteman eztabaidagai denaren inguruko informazioa nahi duen orori dago zuzenduta.

Hezkuntzan emandako azken hamabost urteotan, egoera ezberdin asko bizi izan ditut, Euskal Herri osoan ibilita. Hori dela eta, lan honen sorburua Euskal Herriko eskola gehienetan indarrean dauden metodologiek eragin didaten gogoeta sakonean datza. Baita metodologia horiek Haur Hezkuntzako haurren garapenean izan ditzaketan ondorioetan ere. Adituen esanetan, ohiko eskolaratze-ereduak gabeziak ditu, orain indarrean dagoen eskola ez da umeak behar duen tokia.

Irakurlearengan sistemak dituen arazoei aurre egiteko erantzun berria emateko gogoeta egin beharra bultzatu nahi dut. Horretarako, pedagogia ezohikoak ezagutzera emango ditut. Azkenengo hamarkadetan, inguruko herrialde batzuetan eraginkorrak izan diren zenbait metodologia, hain zuzen ere.

Iradokizunak emango ditut, pedagogia horietako zenbait dinamika aplikagarri ezagutaraziko ditut, eskolan nahiz etxean martxan jartzekoak, marko teoriko hutsa izan ez dadin lan hau. Euskal Herrian ematen ari diren zenbait esperientzia ere aurkeztuko ditut. Horrekin guztiarekin, lanak baliabide praktikoa eta aberasgarria izatea du helburu.

1.2. HAURTZAROAREN ETA GAUR EGUNGO HEZKUNTZA-SISTEMAREN INGURUKO GOGOETA

Indarrean dagoen hezkuntza-sisteman, goizegi eskolatzen dira haurrak. Geletako ratioa oso handia izateaz gain, sistema gero eta zurrunagoa nahiz konpetitiboagoa da, ordutegi zorrotzetan nahiz azterketetan oinarrituta baitago. Gainera, ez da ahaztu behar, gero eta haur gazteagoi zuzendutako eskolaz kanpoko ekintza asko eskaintzen dira; askotan, gainera, umeen aisialdi osoa betetzen dute. Horrek guztiak haurtzarotik jasaten duten presioa islatzen du, ez baitzaio bat-bateko jolasari, sormenari eta gogoetari lekurik uzten.

Ume batek irakurtzen ikas dezan, lehenik eta behin, liburuekin esperimintatu behar du, behar beste material eskuragarri izan behar du, eta ekintza horretan lagunduko dion heldua ere ondoan izan behar du. Ez da nahikoa, ordea. Haurrak egite hori eskatu egin beharko luke; hau da, irakurketarekiko interesa izan beharko luke. Ondorioz, ekintza egiten hasteko mementoa itxaron behar da haurra behartu gabe.

Eskolan ikasketa bera bizkortzen denean, adibidez, irakurketa-idazketako prozesua umea prest ez dagoela martxan jartzen bada, haurrari estresa eragingo zaio. Ondorioz, prozesu hori aurrera eramateko beharko dituen ziurtasuna eta autonomia galduko ditu. Gainera, zer egin behar duen jakiteko, une oro helduaren itzalpean egotera ohituko da. Horrela bada, ikasketa hori ez da ez motibagarria, ezta esanguratsua ere izango.

Edukiak lantzeko, egungo hezkuntza-sisteman ez da ume bakoitzak duen heldutasun maila kontuan hartzen, eta eskola gehienetan, ezta haurren interesak ere. Curriculumak markatzen duena egiten da, eta adina aintzat hartuta sailkatzen dira edukiak. Denek ikasten dute gauza bera memento berean, nahiz eta gaitasunak eta garapenak ezberdinak izan.

Horrek guztiak haurrak berezkoa duen ikasteko eta ezagutzeko gogoia eragozten du, haurren behar, interes eta erritmoei muzin egiten die. Presiopean sumatzen du haurrak bere burua kanpoko inposizio horiek bere barne-garapenarekin bat ez datozelako. Hezkuntza-sisteman, aurrera doazen heinean, motibazio eza areagotu egingo da, eta, ondorioz, umearen ikasteko gogoia berpiztearren -eta hori ez da batere lan samurra- hainbat programa martxan jarri beharrean izaten dira eskola askotan.

Arestian, indartze positiboa eta zigorrak oso erabiliak izan dira. Horiekin, umeak ikastea kanpoko zigor edo sari batek baldintzatzen duela barneratzen du, eta ez du garatzen ikasketa esanguratsuak duen zentzua. Ikasketa esanguratsua izan dadin, ikasteko gogo hori norberaren barreneko emozio, gogo nahiz interesetatik piztu behar da.

Umearen garapenean eragina duten zenbait aldagai dira estresa eta presa. Gaur egungo umeek askotan entzuten dituzte honako esaldiak: “Tira, goazen!”, “Azkar!”. Askotan, sei urte ez dituzten umeek helduek egiten dituzten ekintzak denbora-tarte berean egitea espero da. Haurrari ez zaio behar adina denbora ematen gauzak bere kabuz egin ditzan, ez zaio esperimintatzeko edo erratzeko denborarik ematen. Heldu txiki bihurtu nahi izaten da, ez zaio haur izaten uzten.

“Umeak bere gorputz atalen mugimenduen bitartez, ez du soilik lau oinean, birak egiten, ibiltzen edo lau hankan ibiltzen ikasten, ikasten ikasi ere egiten du: zerbaitengatik interesa

izaten, ahaleginak egiten, esperimentatzen. Poztasuna eta zorientasuna ezagutzen ikasten du, eta hori bere konstantziaren ordainsaria da” (Emmi Pikler)¹.

Ekintzak egiteko presa hori ohiko eskolan ematen da askotan. Umearen haurtzaroa ahalik eta laburren izatea nahi izaten da: azkar irakurtzen ikastea, azkar idazten ikastea; hau da, ahalik eta denbora gutxienean gauza asko ikastea.

Haur Hezkuntzako umeek hainbat ekintza jorratzen dituzte oso tarte laburrean: txokoetan aritzen dira, marrazkia edo fitxa egiten dute, ipuina entzuten dute, gela batzen dute jolastokira joateko, ingeles-eskola jasotzen dute... Erritmo horrek estresa eragiten dio umeari. Egiatzatuta dago umeek hobeto ikasten dutela denbora-tarte luzeetan, lasaitasuna eta presio eza eskaintzen dituzten testuinguruetan. Kontzentrazioa areagotu egiten da eta ikasketa -eta barneraketa- prozesua hobetzen.

Haurraren garapena egokia izan dadin, berau ezin da azkar eta presaka eman. Bizi duen garapen-unea ez da esparru intelektuala bereganatzeko soilik. Bere inguruarekin, gorputzarekin eta harremanak dituen pertsonekin jolastu, esploratu eta esperimentatu behar du. Hori lortzeko, umeak behar duen denbora hartu beharko du, eta guk denbora hori eskaini beharko diogu. Hori da umeak gauzak ondo ulertzeko eta bere kabuz ikasteko modu bakarra. Horrek lagunduko dio auto-estimua, konfiantza eta ziurtasuna lortzen, batetik, eta Lehen Hezkuntza nahiz helduaro arrakastatsua izaten, bestetik. “Jolasteko behar beste denbora izan duten haurrak heldu hobeak izango dira” (Francesco Tonucci)². “...Gandhik ez zuen soilik esaten hezkuntza bizitza osoan eman behar zenik, bizitzaren defentsa hezkuntzaren oinarria zela ere esaten baitzuen...” (Maria Montessori)³.

¹ Vienan jaio eta hezitako pediatra (1902-1984). Ehunka haur zituen Budapesteko umezurztegi bateko umeen ekintzen erregistroa egin zuen bere tesia defendatzeko: *Haurra izaki autonomoa*. Umea bestela aztertzea proposatzen du. Haren erritmo eta autonomia maila errespetatzea, heldua eta haurra maila berean daudela.

² Pentsalari eta pedagogo italiarra (1940). Haren ikerketak haurraren garapen kognitiboan oinarritzen dira. Pentsamenduak, portaerak eta metodologiak umearen kognizioan zer eragin duten aztertu du. Kritika zorrotzak egiten dizkio indarrean dagoen hezkuntza-sistemari, eta eredu pedagogikoa aldatu behar dela adierazten du.

³ Italian medikuntza-lizentziatura lortu zuen lehenengo emakumea (1870-1952). Horrez gain, psikiatra, psikologoa, zientzialaria eta hezitzailea izan zen. Haurrak *xurgatze-ahalmena* duela eta ikasteko prozesua bere kabuz zuzendu dezakeela defendatzen zuen.

Eskolako egunerokoan gertatzen diren hainbat ekintzek gogoeta merezi dute, eta hezkuntza-sistemak haurraren egiten duen esku-hartzeak ere bai. Azkenaldian bada, ordea, bestela aritu nahi duenik. Pedagogia berritzaileak berriro indartzen ari dira. *Berriro* diot, metodologia hauek ez baitira berriak, gehienek zenbait hamarkada dituzte.

2. PEDAGOGIA BERRITZAILEAK

Pedagogia berriek umea ulertzeko, haren beharrak asetzeko eta hezteko modu ezberdinak erakusten dizkigute. *Berri* erabiltzen da, indarrean dagoen pedagogiarekin alderatuz gero, gutxiengoa osatzen dutelako. Ohiko hezkuntzak dituen gabeziak asetzeko erabiltzen dira.

Argi dago eskolaren inguruko eztabaida aspaldikoa dela: zertarako den eskola, gizartean izan behar duen eragina, zelan hezi behar den, ikasleek zer trebetasun bereganatu behar duten... Eta, irakasleen lanari dagokionez, milaka zalantza eta gogoeta egiten dira: betebeharrak egoki burutzen diren, ikasleei dena eginda ematen zaien, autonomia kentzen zaien...

Eguneroko lanean baliabide, kontzeptu, egitura anitz erabiltzen da, baina askotan ez da ezaguna haien jatorria eta zergatia. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen dut garaiko korrante pedagogiko garrantzitsuenak ezagutzea, eguneroko praktikan identifikatzeko eta irakaste-ikaste prozesuari zentzua emateko.

Pedagogia ezagunenak honako hauek dira: Waldorf, Montessori, Wild anaien pedagogia ez zuzentzailea, Sutherland Neillen oinarritutako eskola demokratikoak, Emmi Pikler eta Reggio Emilia. Horietako gehienek zenbait hamarkada dituzte, eta mundu osoan daude hedatuta. Oinarrian honako ezaugarriak izaten dituzte:

-Umea da ardatza: haren benetako erritmoa nahiz beharrak errespetatzen dira (garapen naturala).

-Berezkoa dute jolas librea: manipulazioari eta esperimentazioari lehentasuna ematen zaie.

-Mugimendu-askatasuna: haurraren eskubidetzat jotzen da.

Esan beharra dago, hala ere, eskola berritzaile guztiek ez dutela zertan egokiak izan; onak badaude, baina hezkuntza arautuaren barruan ere badaude eredugarriak direnak. Azken urteotan, gainera, Euskal Herriko eskola publiko batzuetan lan-eredu ezberdinak jorratzen hasi dira.

Bestalde, *benetako eskola berria* eta *sasi-eskola berria* ezberdinu behar dira. Noizean behin proiektuka edo txokoka lan egiteak ez du eskola bat *berri* bihurtzen.

Aurrera egiteko, “*Enséñame pero bonito*” dokumentala ikustea proposatzen dut. Hainbat esperientzia berritzaile aztertzen dira. Erraza da ikusteko. (Iraupena: 50 min).

<https://www.youtube.com/watch?v=bYZJD-aUN0A>

2.1. WALDORF PEDAGOGIA

80 urte baino gehiago dituen mugimendu pedagogikoa da. Gaur egun, munduko mugimendu pedagogikoa libre garrantzitsua da. Lehenengo Waldorf eskola Rudolf Steiner zientzialari, filosofo eta irakasle austriarrak sortu zuen Stuttgarren 1919an. Eskola, Waldorf Astoria zigarro-enpresaburuaren eskaeraren ondorioz sortu zen, langileen seme-alabek, bertan, prestakuntza jasotzeko.

Waldorf eskola etengabe hedatu da Bigarren Mundu Gerran izan ezik, debekua jaso baitzuen. Unescok bultzatutako pedagogia izanik, 3.000 eskola ditu munduko 90 herrialdetan. Espainian 1979an sortu zen lehenengo Waldorf eskola Madrilgo Las Rozas auzoan: Mikael eskola librea.

Steinerrek garatutako ikasketa-estrategia haurren garapen globalean oinarritzen zen: gorputzean, espirituan eta adimenean. Garapena zazpi urteko hiru denbora-tartetan ematen dela aldarrikatu zuen, eta denbora-tarte bakoitzean zer ikasi behar zen eta zer ez zehaztu zuen.

Rudolf Steinerren iritziz, 0-7 urte bitartean ez zen garapen kognitiboa landu behar, eta proposatutako metodologia elkarreraginean eta jolasean oinarritu zuen. Horregatik, hain zuzen, adin-tarte hori zuten haurrei ez zitzaien irakurtzen edo idazten erakusten. Hurrengo 7 urteetan sormena indartzea, hizkuntzak lantzea eta artea sustatzea zen ardatza. Hirugarren eta azken zazpiurtekoan, erantzukizun sozialean oinarritutako hezkuntza formala lantzen zen.

◆ WALDORF PEDAGOGIAREN OINARRIAK

Haurrenganako errespetua izatea

Hasierako urteetan, garapen fisikoa, emozionala eta kognitiboa estuki lotuta daude. Banakotasunarekiko errespetuaren garrantziak indarra hartzen du, eta haurren garapen naturala da ardatza; horren arabera antolatuko da eginkizuna.

Irudimena lantzea, imitazioz ikastea eta zentzuz jokatzeko

Waldorf pedagogiak jolasa ezinbestekotzat jotzen du, horren bitartez sormena, irudimena eta ekimena landuko baitira. Jolasaren bidez, haurrak harremanak izaten ikasiko du, kontzeptu matematikoak barneratuko ditu, hizkuntza landuko du, motrizitate orokor eta fina garatuko ditu, eta Lehen Hezkuntzan garatuko den irakurketa-idazketa prozesurako oinarri sendoa ezarriko du. Beraz, denbora-tarte luzeak eskainiko zaizkio jolas libreari eta sormenari. Eginkizun jakina ez duten jostailuak (“bukatu gabeko” jostailuak) eta material naturalak eskainiko zaizkio haurri irudimena garatzeko. Imitazioa da Haur Hezkuntzako hezitzaileak

duen ezinbesteko euskarria. Haurra jolas librean dagoen bitartean, irakasleak egunerokoan zeregin esanguratsuak beteko ditu (ogia egin, arropa garbitu...). Umeari zeregin horretan laguntzeko eta imitatzeko aukera emango dio. Horrela, ikasitakoak erabateko zentzua izango du haurrarentzat, behartu gabeko ekintzen nahiz interesen arabera ikasiko duelako.

Ingurua zaintzea

Haur Hezkuntzako eskola eroso eta harmonikoa izango da, haurren bigarren etxea izango balitz bezalakoa. Atsedeen-mementoak eta jolas sinbolikoa garatzekoak eskainiko ditu. Garrantzitsuena mirespena, ordena, entzumena eta gozamen-ohiturak erraztuko dituen inguru osasuntsua sortzea da.

Naturarekiko bizipenak sustatzea

Naturak haurren eskolako bizipenekin bat egingo du. Astero, txangoak egingo dira, lorategia zainduko da, zuhaitzak landatuko dira, animaliei behatuko zaie... Haurrak egunero irtengo dira jolastokira, eguraldi ona egin ala ez (eskolan euri eta elurretarako arropa eta oinetakoak izango dituzte).

Talde-lana bideratzea

Taldean, familia-giroa sortu nahian, adin ezberdinetako haurrak egongo dira; txikiek nagusien ekintzei behatuko diete, eta nagusiek txikiei lagunduko diete. Taldean egindako ekintza horiek eguneroko esperientziak aberasteko balioko dute, eta berdinen nahiz helduen arteko harremanak sendotuko dituzte.

“Polita, ona eta benetakoa” leloa barneratzea

Waldorf pedagogiak aldarrikatzen duen mezua da. Eguneko, asteko eta urteko erritmoa kontzienteki landuz eta eguneroko errepikapen erritmikoa baliabide pedagogiko gisa erabiliz, irakasleak umearengan maitasunezko borondatea bultzatuko du. Horixe da Haur Hezkuntzako 0-7 urte bitarteko haurrak jaso behar duen mezua: *mundua ona* da. Garrantzitsua da haurrak hori ikustea, eta hori da transmititu behar zaiona nagusitan konfiantza edukitzeko. Hasierako urteetan, haurrak mundua ona ez dela uste badu, beldurrez biziko da, hots, errukarria izango da. Azkar konturatuko da helduaren keinuak eta hitzak zintzoak diren ala ez. Helduen arteko harremanak aztertuko ditu, eta mundu onean bizi dela jakiteko beharrezana izango du.

Haurren erabateko garapena lortzeko arteari garrantzi handia ematen zaio: margolaritzari, musikari eta antzerkiari. Kolorea ezinbestekoa da margolanetan, eta lehenengo urteetatik musika ikasten hasten dira. Edertasuna eskolako materialetan ere islatzen da: birziklagarriak

izaten dira, naturalak, artisauek eginikoak (luma estilografikoa idazteko, argizarizko margoak koloreztatzeke, oihal eta egur naturalak, Waldorf panpinak, elementu naturalak...).

Azterketarik eta ikaslibururik ez erabiltzea

Lehiari ez zaio garrantzirik ematen. Horren ordean, indibidualtasunean oinarritutako garapen kooperatiboa sustatzen da. Helburu pedagogikoa gizakiaren ulermen, sormen eta erantzukizun sozialaren gaitasunak bultzatzea da, pentsamendua, sentimenduak eta gogoia modu orekatuan landuz. Horrela, garrantzi handiagoa ematen zaio garapen emozionalari praktika artistikoaren eta mugimenduaren kontzeptuen ikasketari baino.

Lehen Hezkuntzan ez dago notarik, ezta presiorik ere. Haurrak, horrela lan eginez, ez du ikasteko gogoia galtzen. Ikasliburua umeei sortzen dute, eguneroko lanen bilduma osatuz. Bakoitzak bere koadernoak sortzen du modu ordenatuan, marjinak zainduz eta kolore asko erabiliz.

Teknologia berriak ez sustatzea

Haurrak hasierako urteetan ez ditu teknologia berriak erabiliko, ikasketa biziagoa eskaini nahi zaio.

Erritmoak eta eskolako egunerokoa aintzat hartzea

Erritmoa ezinbestekoa da ikasketa-prozesuan. Eguneroko eginkizunak hurrenkera orekatuan daude egituratuta: lan mentala eta praktikoa, kontzentrazioa eta erlaxazioa, mugimendua eta atsedena, behatzea eta egitea, entzutea eta parte hartzea.

Haur Hezkuntzako umeei duten denboraren kontzeptua eta helduei dutena ezberdina da. Astiro-astiro bereganatuko dute, egunero lan-plangintza berari jarraituz. Haurrak ziurtasuna eta ordena barneratuko dituzte erabateko garapena lortze aldera.

Ikasturteko programazioa egiterakoan, aintzat hartu beharreko hiru erritmo daude: eguneko erritmoa, astekoa eta urtekoa.

1. Eguneko erritmoa: goizean ez dira ohiko saioak ematen; hau da, ez da lehenengo orduan jolasten, gero ingelesa egiten, ordu erdiko patioa... Steinerren iritziz, prozedura horrek haurren kontzentrazio-gaitasunean kaltea eragiten du. Horregatik, lasaitasuna aintzat dituzten denbora-tarte luzeak gauzatzen dira. Mugimendu-ekintzak (jolas librea, dantzak...) kontzentrazio-ekintzekin tartekatzen dituzte (ipuina entzutea, gosaria prestatzea, ekintza artistikoak egitea...). Jolas liberako denbora-tartea (gela barruan nahiz kanpoan), beti, gidatutako ekintzarako denbora-tartea baino luzeagoa izaten da.

2. Asteko erritmoa: astegun bakoitzean ekintza artistiko jakin bat lantzen da. Astelehenean, adibidez, argizaria erabiliz margotzen da; asteartean, pintzela erabiliz; asteazkenean, josi egiten da...

3. Urteko erritmoa: urtaro bakoitzari dagokion jaia prestatzen da, baita bestelako ospakizun batzuk ere.

◆ NOLAKOA DA EGUNA WALDORF ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?

Waldorf eskola guztiek, erritmo eta errutinei dagokienez, antzera funtzionatzen dute. Eskola horien egunerokoa ez dator bat ohiko eskolakoarekin. Ez dira grafomotrizitate -edota matematika- fitxa abstraktuak egiten, eta eserita oso denbora gutxi ematen dute. Haurrak egunean duen zereginik garrantzitsuena oso sinplea da: jolastea.

Gelara sartzen direnean zapatak kendu eta etxeko zapatilak jantzen dituzte. Ordurako, hezitzailea ekintza bat egiten egoten da, eta urtaroari lotutakoa izan ohi da: neguan, adibidez, sua piztea, infusioa prestatzea, jostea, gaztainak zuritzea... Interesa duen haurrak, nahi izanez gero, ekintza horietan lagunduko du, bestela, jolastu egingo da. Goizeko lehen ekintza horren helburua imitazioa garatzea da; hau da, hezitzailea egiten ari denari behatzea eta ekiten hastea. Bestalde, ekintza orok beti du zentzua, etxean egiten diren ekintzak izan ohi baitira. Ikasgela jasotzean ere, imitazioa lantzen da: hezitzailea da bere gauzak jasotzen hasten den lehenengoa. Jarraian, haurrak gela batzen hasten dira. Une bakoitzak bere abestia izan ohi du, eta, abesten duten bitartean, ekintzari ekiten diote.

Ondoren, lasaitasun-tartea egoten da beti. Arnasa hartzen eta norbera lasaitzen ikasten dute korroan. Urtaroarekin lotutako abestiak, olerkiak eta errimak lantzen dira. Hamarretakoa egin baino lehen, txiza egiten dute, eskuak garbitu... Ekintza polita da hori, itxaroten eta txandak errespetatzen ikastearekin batera, eskuak garbitzen nagusiek txikiei laguntzen baitiete. Horrekin elkarlana lantzen da.

Hamaiketakoa ekintza soziala eta gustukoa da. Mahai inguruan eseri, eta hezitzaileak atzamarrekin ipuin bat kontatzen du. Ipuina lau astean zehar errepikatzen da, errepikapenak izugarrizko ziurtasuna ematen baitio haurrari, baita hezkuntza ondo barneratzeko aukera ere. Ondoren, abestitxo bat kantatzen dute, eta, gero, eskerrak ematen dizkiete lurrari eta eguzkiari emandako jakiengatik. Denek elkarrekin jaten dute familian bezalaxe. Eskola batzuetan hamarretakoa familiek ekartzen dute txandaka, beste batzuetan, haurrak edo eskolak berak. Ahal den neurrian, janari osasuntsua jaten dute: zerealak, fruta, infusioak... Sarritan, hurrek fruta edo belarrak ortutik hartzen dituzte.

Gero, dena jasotzen da kanpora joateko; bakoitzak bere katilua sukaldera eraman, eskuak garbitu eta zapatilak kentzen ditu. Egunero ordubete gutxienez egoten dira kanpoan. Jostailu gutxi daudenez, naturak emandako gauzekin moldatzen dira: intxaurrekin, lurrarekin, hostoekin, urarekin...

Berriz gelara sartutakoan, mahaian biltzen dira denak. Mahaia urtaroko osagaiekin atonduta egon ohi da, eta hezitzaileak urtaroari dagokion ipuin bat kontatzen du. Ipuinaren bidez, zenbait balio lantzen ditu.

Ipuina landu eta gero, etxera edo jantokira joateko unea da. Normalean, Waldorf eskolek ez dute arratsaldeko klaserik eskaintzen; batzuetan, jardunaldia aisialdiko ekintzekin luzatzen dute. Eta horrela bukatzen da eguna eskola horietan, lasaitasunez, haurrari nahiko denbora eskainiz, inposiziorik gabe eta errespetua eskainiz. Haurrak sentipen ugari mundua, jolas eta irudi biziak eramaten ditu egunero etxera, bere garapenerako oso lagungarriak izango direnak.

Waldorf eskolako Haur Hezkuntzako haurrak azaltzen dira honako dokumentalean: <https://www.youtube.com/watch?v=vufjaYfhlqk>.

Giro lasaian ari dira. Nabarmentzekoa da lasaitasun hori hezitzailearen jarreran.

2.2. MONTESSORI PEDAGOGIA

Egun Haur Hezkuntzan hedapen handien daukan pedagogia da. Zabaltzen jarraitzen du, eta datuok Montessori eskolek munduan duten izen ona aditzera ematen dute.

Maria Montessori 1870ean Chiaravallen jaiotako psikiatra, sendagile eta pedagogo italiarra izan zen. Italiako lehen emakume sendagilea. Sendagile aritu izanak adimen-urritasuna zuten haurrei behatzeko aukera eman zion. Ikasle horien erantzuteko gaitasuna hobetzeko asmoz, haren teoria lantzeari ekin zion. Erroman, “Casa dei bambini” eskola sortu, eta munduan barrena teoria zabaltzen aritu zen.

Hainbat Montessori elkarte daude. Hasierako Montessori eskolak Haur Hezkuntzakoak izan ziren, lehen haurtzarolari berebiziko garrantzia ematen baitzaio: jaiotzetik 6 urte bitarteko bizitza-epea da funtsezkoena. Horregatik, lan-ildoan epe horretarako garatu zen bereziki, nahiz eta ondoren Lehen eta Bigarren Hezkuntzara ere hedatu.

Montessori metodoaren arabera, haurraren garapena ez da lineala, hainbat maila baitaizka: lehen haurtzaroa (0-6 urte bitartekoa), haurtzaro handia (6-12 urte bitartekoa), nerabezaroa

(12-18 urte bitartekoa) eta heldutasun gaztea (18-24 urte bitartekoa). Montessorik ez zuen juniorik sortu nahi, giza-ahalmenak garatzeko aukerak eskaini nahi zituen.

◆ MONTESSORI PEDAGOGIAREN OINARRIAK

Haurraren gaitasunak lantzea hasierako urteetan

Jaiotzetik 6 urte bitarteko garapena oso esanguratsua da haurraren bizitzan, gauza berriak erraz -eta gogotsu- ikas baititzake. Sei urteko haurra gai da oroimena erabili gabe zatiketa, biderketa, munduko nazioen izenak, eta abar ikasteko; ondorioz, ez ditu buruz ikasiko ez biderketa-taulak, ezta kontzeptu abstraktuak ere. Berariaz sortutako materiala erabilia lortuko du hori guztia, Montessoriren esana baitzen “eskua buruaren lanabesa da”. Adinean aurrera joan ahala, poliki-poliki, galdu egingo du gaitasuna.

Ikaslearen jarduera librea indartzea

Metodo horrek eskolan isilik eta geldi egon beharra -nahiz ezartzen den askatasun falta- gogor kritikatzan ditu, baita diziiplina lortzeko erabiltzen diren zigorrak eta sariak ere. Geldotasunean ez dago askatasunik, eta ezin da barneko mundua era egokian garatu. Inguruan dagoena barneratzeko *jardun* egin behar da; hau da, ukitu egin behar da, sentitu egin behar da eta sortu egin behar da. Autoikaskuntza norberak ikasten duenean sortuko da.

Montessori eskoletan askatasun psikologikoa oso garrantzitsua da, eta nork bere erregulazioa garatzen du. Haurrak -besteak eragozten ez dituen bitartean- badauka lan egiteko askatasuna. Aldi berean, bereziki, ordena fisikoa zainduko da; izan ere, ordena fisikoak psikologikoa eragiten du. Ordena lortzeko, zailtasunaren eta gaiaren arabera antolatuko du irakasleak materiala apalategietan; dena haurraren esku utziko du, baita altzairuak, konketak eta bestelako erremintak ere. Haurrak harrikoa egingo du, pitxerretik ura botako du, zorua erratzez garbituko du...

Zentzumenen garapena lantzea

Haurrak zentzumen guztiak erabiliko ditu mundua bereganatzeko: objektuak ikusiko ditu, eskuetan hartu eta zurrupatuko ditu, soinua lortzeko bota eta kosk egingo die... Zentzumenetatik pasatakoa gordeko du gogoan; hortaz, eskuak erabiltzea ezinbestekoa izango da adimena garatzeko.

Metodoak tresneria pedagogiko berezia behar du. Haurrak entzunez, ikusiz, ukituz, mugituz, dastatuz eta usainduz ikasiko du; horregatik sortu zituen Montessorik zentzumen horiek guztiak lantzeko materialak.

Banakotasuna aintzat hartzea

Irakasleak haur bakoitzaren garapenari behatuko dio, baina ez du esku hartuko; bakoitzaren jardunbidea zuzenduko du soilik. Horrexegatik, hain zuzen, deitzen zitzaien *zuzendari* Montessori pedagogia erabiltzen zuten irakasleei. Zeregina erabilerari behatzea izango da, haurrari inguru aberasgarria eta material egokiak eskainita. Nork bere egitekoak zuzenduko ditu, materialek oker eta zuzen egindakoaren berri ematen baitute.

Talde-lana bideratzea

Haurrek elkarren artean arituta ere ikasi egiten dute. Hori dela eta, Montessorik talde heterogeneoetan aritzea proposatu zuen. Hala, adin-tarte ezberdinetako haurrak nahastu egingo dira gelan, beti ere, hiru urteko alde baino gehiago ez badute. Ikasteko nahia bizitu egingo da: handiek irakatsi ahalko dute, eta txikiek, handien ereduari erreparatuta, ikasi egingo dute.

Materialari garrantzia ematea

Materialak banaka lantzen ditu edukiak (forma, luzera, usaina, kolorea, pisua...). Ezaugarri horiek banan bana landuko dira Haur Hezkuntzan; esate baterako, kolore jakin bat landu nahi bada, kolore hori duten objektuak manipulatu dituzte, baina denek forma eta tamaina bera izango dute. Koloreak bereiztu ahala, tonalitateak bereizten hasiko dira (ilunak, argiak...).

Gelan askotariko materialak edukiko dituzte: usaimena lantzeko ontziak, esku trebetasuna lantzeko lokarriak, geometria lantzeko piezak, dorreak egiteko blokeak, lixazko letrak...

Ezagutza kognitibo berria eragiteko Montessori pedagogiak ahalik eta zentzumen gehien lantzen ditu. Irakurketa-idazketako prozesuari ekiteko, adibidez, ikasleek letrak idatzita ikusiko dituzte, ahoskatzen entzungo dituzte, lixazko letrak ukituko dituzte, letrak manipulatu dituzte, besteak beste.

Bestelako hau ere erabiltzen dute: bizimodu praktikorako kutxa. Haurrari etxeko zereginak imitatze aukera ematen dion hainbat objektu biltzen ditu kutxak: kremailetak, oihalak, lokarriak, botoiak, garbiketarako tresnak, zapatei emateko betuna ...

Materiala hiru arlotan banatu da: eguneroko bizimodurako materiala, zentzumenak lantzeko materiala eta material akademikoa. Akademikoa dena irakurketarako, geografiarako, natura lantzeko, idazketarako eta abarretarako erabiliko da, baina umeari erabiltzeko gai denean baino ez zaio eskainiko; hortaz, haur bakoitzak une ezberdinean helduko dio.

Gelako giroari garrantzia ematea

Giro egokia eskainiko da. Materiala zaintzen eta ordena mantentzen irakatsiko da, inguru harmonikoa, goxoa eta garbia lortzeko. Emozioei ere erreparatuko zaie; haurrari inguru ziuerra eskainiko zaio mugimendua, mintzaira, independentzia eta autoestimua garatzeko. Hori lortzeko, edozein detailetxok du garrantzia: irakaslearen ahots-tonuak, gelaren antolaketa harmonikoak, espazioaren edertasunak, material erakargarriek (zeramika, kristala, egurra...), lore naturalek...

◆ NOLAKOA DA EGUNA MONTESSORI ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?

Montessori eskola guztiek dinamika berdintsua izaten dute, materialen lanketan, naturarekiko harremanean eta taldeko ekintzetan oinarritzen baitira.

Gelara lasai sartzen dira. Behin barruan, umeei zapatak kendu eta oinetako eroak jarriko dituzte. Ondoren, askatasun osoz arituko dira: hazia ereingo dute, puzzlea egingo dute, ipuina aztertuko dute, zenbakidun kartak ordenatuko dituzte, etxeko plastilinarekin arituko dira, apalak garbituko dituzte, edalontziak urez beteko dituzte... Helduak umeari behatu baino ez dio egingo, eta beharrezkoa denean, laguntza eskainiko dio. Noizean behin, ekintza gidatuak egingo dira -banaka edo talde txikian- zenbakikuntza, hiztegia edo material jakin baten erabilpena azaltzeko.

Hamaiketakoa (ogia, tostadak, marmelada...) umearen eskura egoten da, beharrezkoa duenean berak prestatu eta jan ahal izateko.

Ordubete baino gehiago ematen dute esperimentazio-jardueran. Ondoren, zapatak jantzi eta kalera irteten dira. Naturarekin bat egiteari garrantzi handia ematen diote: loreak biltzeari eta zaintzeari, intsektuei behatzeari, baratza lantzeari... Behin gelara itzulita, errimak, kantak edo ipuinak landuko dituzte.

Bazkarirako mahaia haurrek prestatzen dute, eta bertan bazkaltzen gelditzen ez direnak etxera joateko prestatuko dira. Tarte lasaia izaten da bazkariarena. Umeei lore politex apaintzen dute mahaia, ura elkarri zerbitzatzen diote, platerak harraskan batzen dituzte eta mahaia jasotzen dute. Lo-kuluxka egiten dute ondoren. Jardunaldiari amaiera emateko, mugimendu edo esperimentazio-ekintza erlaxatua egiten dute.

Horrela ematen da eguna Montessori eskola batean. Haurrak lasaitasun osoz aukeratzen ditu bizi nahi dituen esperientziak, ikasteko gogoia piztuz. Egunez egun, haren garapenerako

lagungarriak diren bizipen politikak bilduko ditu. Maria Montessoriren esanetan haurren poza da hezkuntza-jarduera egokiaren seinale.

Montessori eskolako Haur Hezkuntzako haurrak zer egiten duen ikusten da bideootan:

<https://vimeo.com/121159299>

<https://www.youtube.com/watch?v=S0HII7dmOzU>

Nabarmentzekoak dira giro lasaia, materialen antolaketa eta haurren autonomia-maila.

2.3. REGGIO EMILIA PEDAGOGIA

Hezkuntza-esperientzia hori, 1945ean Italiako iparraldeko Reggio Emilia izeneko herrian sortu zen. Sortzailea 1920an Correggion jaiotako Loris Malaguzzi pedagogo izan zen. Adituen esanetan, Haur Hezkuntzarako dauden proposamenen artean, onenatarikoa. Harvardeko Irakasle Eskolak, adibidez, eredutzat du Haur Hezkuntzako talde-lanari dagokionean. Haurren ikaskuntzaren eta garapenaren inguruko teoriak biltzen ditu; besteak beste, Piageten ezagutzaren eraiketa, Vygotskiren konstruktibismo soziala eta Howard Gardnerren askotariko adimena.

◆ REGGIO EMILIA PEDAGOGIAREN OINARRIAK

Haurra ardatz izatea

Haurrak ez du kausa-ondorio erlazioaren bidez ikasten, ezta helduarekin duen zuzeneko harremanaren bidez ere. Ikasten duena haren egitekoaren ondorio zuzena da; ekintzen, erlazioen eta errekurtsoen bidez ikasten du. Izaki indartsua da, ikusmin handikoa eta sozializaziorako interesa duena.

Irakaslea aditu, laguntzaile, ikertzaile eta gidari izatea

Irakasleak proiektuetan, ikerketetan eta ikaskuntzaren eraikuntzan lagunduko du. Umeak, bestalde, ikaskuntzan aurrera egiteko, behatu, entzun eta galdetu egingo du. Irakaslea, era berean, umearengandik ikasteko prest egongo da, elkarkidetzan arituko baitira.

Haurrak *ehun hizkuntzak* lantzeko aukera edukitzea

Malaguzziren iritziz, haurrak ehun hizkuntza baino gehiago menperatzen ditu ahozko adierazmena bereganatu aurretik. Horien bidez adierazten du bere nahia; aldi berean, sormena, giza-garapena eta garapen kognitiboa indartzeko balio diote. Ehun hizkuntzen

erabilera ahalbidetzeko, espresio-tailerra sortu zuten Reggio Emilia herrian: espresio-ekintzak garatzeko laborategia, sormena eta fantasia lantzeko eremua... Haurrak hainbat teknika erabiltzeko aukera zuen (marrazkigintza, buztigintza, estatugintza...), eta, hezitzailearen laguntzaz gain, Arte Ederretako adituaren laguntza ere bazuen.

Inguruari garrantzia ematea

Eskolako espazioaren diseinuak eta erabilerak erraztu egingo dute komunikazioa zein elkarketa. Ordena eta edertasuna zainduko dira; horrela, gune bakoitzak berezko helburua eta izaera edukiko ditu, eta gurasoek -nahiz ikasleek- aintzat hartuko dute. Ikasgela barruan, askotariko objektuak izango dituzte erabilgarri, naturako elementuak gehienak: lumak, itsas-izarrak, eskolak... Familiak edo irakasleek merkatuan salgai ez dauden beste hainbat objektu lortuko dituzte.

Eskolako paretak haur eta helduen sormen-lanak erakusteko erabiliko dira. Zuriak eta oso apaingarri gutxikoak izan ohi dira; lasaiak, arreta ez galaraztekoak.

Familiak rol aktiboa izatea

Familiak haurren ikasketa-prozesurako ideiak eta iradokizunak proposa ditzake. Gainera, eskolako proiektuak martxan jartzen lagunduko du.

Dokumentazio pedagogikoa erabiltzea

Ikasteko eta irakasteko prozesuaren berri emateko erabiltzen da dokumentazio pedagogikoa. Haurrek izandako esperientzien berri ematen du, irakasleek haurra hobeto ezagutzeko aukera ematen du, eta haur bakoitzaren garapenaren jarraipena errazten du. Dokumentazio hori osatzeko argazkiak, bideo grabaketak, audioak, notak eta haurren ekoizpenak erabiltzen dira.

Haurren esplorazio librea ezinbestekotzat jotzea

Oinarria haurren esplorazio librea denez, ikerketa-proiektuak egingo dira. Laburrak ala luzeak izan daitezke; haur batek izandako arazo batean oinarritutakoak ala irakasleak proposatutako esperientzia batean oinarritutakoak. Ondorioz, ez da ikaslibururik erabiliko, ezta fitxarik ere. Proiektuak irakasleen eta familien artean zehaztuko dira.

◆ NOLAKOA DA EGUNA REGGIO EMILIA ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?

Reggio Emilia eskolan, lasaia sartu ondoren, batzarra egiten da. Eguneko zereginen inguruan hitz egiten da, eta, ekintzak azaldu eta prestatu egiten dira. Tarte ona da ulermena eta

ahozkotasuna lantzeko, baita arauak praktikan jartzeko ere (hitz egiteko txanda itxarotea, besteei entzutea, ez molestatzeara...). Ikaskideen artean arazoak suertatuz gero, batzarrean konpontzen dira.

Batzarra bukatuta, proiektuari ekiten diote. Manipulazioa nahiz esperimentazioa ezinbestekotzat jotzen direnez, eginkizunen bat garatuko dute. Denbora luzean horretan aritu ondoren, kanpora aterako dira jolas librean aritzera. Bueltan, bizitakoari buruz hitz egingo dute, abestitxo edo ipuintxo bat landuko dute eta bazkaldu egingo dute. Normalean, bazkalordua gelan bertan egiten da. Jardunaldiari bukaera emateko lo-kuluxka edo atsedean hartzeko unea eskaintzen zaio haurrari.

Bideootan Reggio Emilia pedagogiaren hainbat jokabide ikus daitezke.

<https://www.youtube.com/watch?v=T5AguDN48IU>

<https://www.youtube.com/watch?v=HQKD5evdcr&list=RDT5AguDN48IU&index=3>

Lehenengoan honakoari erreparatu ahal diogu: gelaren antolaketari, haurren lanak eskolako hormetan izatearen garrantziari, esperimentazioaren eta material naturalen erabilerari. Bigarrenean, materialen sinpletasunari. Bideoek aukera paregabea ematen dute ideia errazak eta politak ateratzeko. Laburrak dira, baina oso adierazgarriak.

2.4. EMMI PIKLER PEDAGOGIA

Emmi Pikler Vienan (Austria) jaio zen 1902an. Familia judu-hungariarra zuen. Ama maistra zen eta aita eskulangilea. 1927an pediatriako doktoretza lortu zuen Budapesteko kirurgia ospitalean. Hor bertan ezarri zituen haur txikiaren garapenerako haren pedagogiaren hainbat printzipio:

- Bularreko haurren janzkera aldatu zuen. Sasoi hartan, haurrak faxan biltzeko ohitura bazegoen ere, hark -askatasunez mugitu ahal izateko- pixoihalak sustatu zituen.
- Hark sortutako lo-zorroak erabili zituen. Negurako mantak baztertu zituen.
- Haur guztiek hainbat ordu ematen zituzten ospitaletik kanpo aire zabalean, izan negu zein uda.
- Otorduetan arau zorrotza ezarri zuen: haurrari jan nahi zuen kantitatea bakarrik ematea, gehiago ematea debekatu zuen.

- Osasun-azterketak egiteko haurrak lasai egon behar zuten. Izaki bizia eta sentikorra denez, inguruan gertatzen denaz jabetzeko gai da; hortaz, lasai sentitzea ezinbesteko bihurtu zuten.

Emmi Piklerrek honakoa ondorioztatu zuen: kalean jolasean denbora gehiago pasatzen zuten haurrei, etxeko babesean eta diziiplina zorrotzaren menpe bizi zirenei baino gutxiago apurtzen zitzaizkien hezurak. Orduan hasi zen Pikler ohartzen libre mugi zitekeen haurra kontu handiz aritzen zela, eta erortzeko modu egokiak hartzen zituela.

Lehenengo alaba izateak jokabidea finkatzeko eta zehazteko aukera eman zion:

- haurraren garapena ez bizkortzea eta erritmo naturala errespetatzea
- haurraren berezko inizatiban konfiantza izatea
- mugimendua sustatzea eta ekintza autonomoa bultzatzea

Hamar urtez hainbat ideia egiaztatzeko, esperimentatzeko eta aberasteko aukera izan zuen: haren pedagogiaren oinarria eratzeko.

1946an hungariar gobernuak Loczy hiriko Babes-Etxea haren gain hartzeko eskatu zion. Etxearen izena Loczy zen, izen bereko kalean kokatuta baitzegoen. Helburua guraso gabeko haurrentzako eta gurasoek zaindu ezin zituzten haurrentzako etxe bat eratzeko zen. Loczy, haurraren garapenaz eta bizitza-esperientzia egokiaz arduratzeaz gain, ikerketa-gune ere bihurtu zen: haurraren garapenaren hainbat irizpidetan oinarrituta behaketa sakonak egin zituzten. Hasieran, 0-3 urte bitarteko haurrak besterik ez zituzten hartu. Urteak pasata, ordea, 6 urte bitarteko haurrak hartzea erabaki zuten, harreman egonkorrek umearen garapenean zuten garrantziaz ohartuta.

Loczyko jarduna Hungariatik kanpo ere ezaguna egin zen. 1970ean, Loczyko Babes-Etxea Institutu Metodologiko Nazional izendatu zuten. Emmi Pikler hil eta gero, haren jarraitzaileek Pikler-Loczy izena jarri zioten institutuari, eta 1989az geroztik, fundazioa da.

Euskal Herrian bada Pikler-Loczy sarea eta hainbat eskolatan lan-dinamika hori erabiltzen da.

◆ EMMI PIKLER PEDAGOGIAREN OINARRIAK

Haurrenganako errespetua izatea

Haurrenganako begirada enpatikoak garrantzia izugarria du, bizitzako lehenengo unetik haurra pertsonatzat hartzea. Piklerren hitzetan: “errespetua behar diogu haurraren izate osoari. Bizitzako lehen unetik pertsona aktiboa, bizia eta sentikorra dela kontuan izan behar dugu”.

Zaintza-uneak aintzat hartzea

Helduak erreferentzia egonkorra izan behar du bakarkako harremanetan umeari ziurtasun fisikoa eta afektiboa emateko. Adin-tarte horretan behar fisiologikoak ez dira behar psikikoetatik bereizten. Haurra izaki aktiboa dela aintzat hartuta, heldua eta haurra elkarerraginean arituko dira zaintzaldietan. Harremana sortuko da, komunikazioa. Helduaren inplikazioa, beraz, ezinbestekoa da: jarrera egokia izango du, eta haurraren beharrianak beteko ditu. Ondorioz, haurrak bizipenak izango ditu; hots, pertsona izatearen sentimenduak, fisikoak zein psikikoak.

Egunerokoan hasieratik adieraziko zaio zer egingo zaion. Gertatu aurretik jakin egingo du zer espero behar duen helduarengandik. Ez du ezustekorik izango hitzez adierazi zaiolako.

Mugimendu autonomo librea onartzea

Ezaguna da Emmi Piklerren “Moverse en libertad” liburua. Bertan azaltzen du, zehatz-mehatz, zein den haren jokabidearen funtsa. Piklerren hitzetan, mugimendu autonomo librean hazten den haurrak gorputzaren eta gaitasunen ezagutza osoa lortzen du, mugak ondo ezagutzen ditu eta bere buruarengan konfiantza izaten du.

Haurrari mugimendu autonomo librean garatzeko baldintzak eskainiko zaizkio eta helduak ez du inoiz prozesua aurreratuko: haurraren garatzeko gaitasunean konfiantza izan beharko du, haren ekimenak errespetatu eta ulertu beharko ditu. Horrela, haurrak bere kabuz egingo ditu ekintzak, haren bizitzako protagonista baita. Aldi berean, bere burua ezagutzen hasiko da, nolako funtzionamendu autonomoa duen ezagutuko du, zer-nolako estrategiak erabili behar dituen bakarrik aritzeko, sozializatzeko...

Emmi Piklerrek egunero sortzen diren egoerak ere modu autonomoan garatzea proposatu zuen, baita horietan aritzeko denbora eskaintzea ere. Horretarako beharrezkoak ziren objektu eta jostailuak haurraren eskura jartzea gomendatu zuen.

Maitasuna ezinbestekotzat jotzea

Metodoa gauzatzea ez zen lan erraza izan; izan ere, metodologia menperatzeaz gain, sentitu ere egin behar zen. Judith Falk doktoreak, Piklerren ondoren Loczy institutuko zuzendari izan zenak, hausnarketa sakona egin zuen horren ildotik: “Eman daitekeena baino gehiago ezin da eman, baina ematen den orok maitekorra eta segurua behar du izan”.

◆ NOLAKOA DA EGUNA PIKLER ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?

Haurrak hainbat erabaki hartzeko aukera izaten du txiki txikitatik. Goizean, jolas librean aritzen dira, nor bere mugimenduaren eta esperientzien protagonista izanik (haurraren mugimendu librearen errazteko gelako espazioa oso zabala izaten da). Hainbat materialekin esperimentatzen du, artea lantzen du, gorputza ezagutzen du... Dena bakoitzaren ekimenean oinarrituta. Haurrak badu ohiko aretotik ateratzeko aukera, bestelako txokoren batera joateko aukera. Ekimenean eragiteko beti galdetzen zaio atera nahi duen ala ez. Noizbehinka, eskolako biltegira eramaten dituzte haurrak gustuko duten materiala aukeratu eta gelara eramateko. Ondoren patiora ateratzen dira mugimendu librearen eta autonomia lantzeko.

Bazkaldu egiten dute gero. Piklerren eskalari jarraituz, titikoek gelan bertan jaten dute beti. Lehenik altzoan, eta gero, pixkanaka-pixkanaka, binaka bazkaltzen hasiko dira. Oinez dakitenek ere gelan bertan izaten dute atonduta jateko tokia. Nagusiek, ordea, jangelan bazkaltzen dute, txandaka.

Bazkaldu ostean siesta egiten da. Haurrak ez du siesta-ordurik, ez da lotara behartzen. Haurrak berak badaki ohe txikira edo sehaskara igotzen eta, nekatuta dagoenean, lo egiten. Arratsaldean malgutasun handiz jokatzeko dute, berriro: bakoitzak uneoro erabaki dezake nora joan eta zer egin.

Eta horrela bukatzen da jarduna, haurrari laguntzen, haren garapen-erritmoa eta ikaskuntza-prozesua errespetatzen. Jokabide hori aintzat hartuta, haurrak lasaiagoak, autonomoagoak eta osasuntsuagoak izango dira, bai fisikoki, baita psikikoki ere.

Bideoan Pikler pedagogian zaintzen direnak azaltzen dira; besteak beste, haurrarekiko harreman estua eta maitekorra, mugimendu libre eta lasaia, haurraren autonomia eguneroko zereginetan, arropa edo pixoihalak aldatzean libreki mugitzeko aukera, janaria eskura izatea...

https://www.youtube.com/watch?v=O_mAA5jcqhc

2.5. ALEXANDER S. NEILL

Hezkuntzaren ikuspegi erradikalaren eredu garbia dugu Alexander Sutherland Neill, 1883an Eskozian jaioa. Aita eskola-irakaslea zen arren, ez zituen haurrak gustuko, eta uneoro zigortzen zuen Neill. Horrek, gerora, eragin handia izan zuen Neillengan. Ingelesa eta Historia ikasi eta gero, kazetaritza lanak egin zituen. Ondoren, Eskoziako eskola bateko zuzendaria izanda heziketa gaiei buruz idazten hasi zen, eta lehen liburua argitaratu zuen.

1921ean Summerhillgo eskola-barnetegia sortu zuen Ingalaterran. Leiston herrian kokatu zuen eskola, Londrestik 165 kilometrora. 5-15 urte bitarteko haurrak hartzen zituen, eta hezkuntzari buruz zuen ikuspegi erradikalaren oinarri teorikoa jarri zuen praktikan; gerora Neill eta Summerhill batera joango dira. 1973an Neill zendu zenean emazteak hartu zuen eskolaren ardura, eta ondoren, alabak.

◆ NEILL PEDAGOGIAREN OINARRIAK

Ongizatea eta zoriontasuna bermatzea

Bizitzaren oinarritzat jotzen ditu. Neillen ustez, “bizitzan izan behar dugun helburua zoriontsu izatea da”. Haurra, berez, jaiotzen denetik, ona, zintzoa eta zentzuduna da, eta bizitza ezagutzeko interesa du.

Sentimendu librean garapena sustatzea

Neilli interesatzen zaiona bihotza da, ez burua. Haurrari sentimenduak adierazteko aukerak eskaini behar zaizkio. Haren hitzetan, “sentimendu libreak onartzen badira, adimena berez azalduko da”.

Askatasuna eta autorregulazioa ikastea

Neillek oso ondo bereziko du askatasunaren eta libertinajearen arteko muga: haurrak nahi duena egin dezake, baina, beti, bere ondokoa mindu gabe. Hori dela eta, haurrak aukeratu egingo du eskolara joan edo jolasean gelditu. Hautaketak garrantzi handia izango du Summerhillen, hautatzeko askatasun horrek autorregulazioa ahalbidetuko baitu. Neillek gogor defendatzen zuen honakoa: haurra nahikoa jolastu denean soilik hasiko da lanean eta gauzez arduratzen. Ideia horrek eztabaida ugari piztu du pedagogia modernoan. Baina haurra gustura eta sarri joan ohi da eskola jasotzera Summerhillen. Orain arte ez da arazorik antzeman, ez ikasketak jarraitu ahal izateko, ezta pertsona bezala ondo hazteko ere.

Summerhillgo eskolan komunitatearen aurkako zerbait egiten denean, zigorrak ezartzen dira. Baina zigorrek ongiaren eta gaizkiaren arteko ezberdintasuna barneratzeko ideia morala dute funtsean: zigorra ez da sufrimendua eragiteko jarriko, konponketa morala lortzeko baizik.

Batzarrak egitea

Batzarrak talde-bizitza hobetzea du helburu. Talde-bizitzak testu liburuek baino garrantzia handiagoa du haurraren garapenean. Hori dela eta, Summerhillgo eskolan, astean behin, batzarra egiten da gertatutako ekintzei buruz eztabaidatzeko eta funtzionamendu-arauak

ezartzeko. Haur guztiek hartzen dute parte, eta umeen botoak nahiz eskolako langileen botoak balio berbera izaten du. Demokrazia zer den ezagutu eta bizi egiten dute.

◆ **NOLAKOA DA EGUNA SUMMERHILL ESKOLAN? ZER EGITEN DU HAURRAK?**

Goizean ekintza librea da ardatz nagusia, bakoitzak aukeratzen du zein zereginetan aritu: Montessori eskolako materiala erabili, hainbat mahai-jokotan aritu, sofan eserita irakurri, tailerretan edo ikastaro jakin batean parte hartu... Eskola hainbat gunetan dago banatuta: kanpoaldean zuhaiztia, belardia, ezkutalekuak...; barruan zurgindegia, arte-aretoa, musika sortzeko aretoa, mugimendua lantzeko aretoa eta abar. Haurra eremu batetik bestera pasa daiteke nahi duen eran aldamenean heldu bat duela -ahal den heinean-. Beraz, haurra ez da eginkizunera behartzen, hark uneoro hartzen du iniziatiba.

Goizero eskolako mantentze-lanetan parte hartzen du: eskobatu, komunak garbitu, materialaren mantenua egin... Ondoren bazkaltzeko eta deskantsatzeko tartea izaten du: bakoitzak, bere beharraren arabera, siesta botatzen du edo lasai jolasten da.

Bideoan Summerhill eskolako oinarrien berri ematen da, baita haurren eguneko zereginen berri ere.

<https://www.youtube.com/watch?v=hwrnLsaBNNc>

3. APLIKAZIO PRAKTIKOA AURRERA ERAMATEKO IRADOKIZUNAK

3.1. WALDORF

Waldorf pedagogiak baditu eskolan nahiz etxean egoki daitezkeenak.

Jolas librea, material naturalak eta eginkizun jakina ez duten jostailuak erabiltzea

Haurrari jolas librean aritzeko denbora-tarte luzeak eskainiko zaizkio. Jostailua zenbat eta soilagoa izan, orduan eta gehiago landuko du sormena eta imajinazioa; ondorioz, garapenean aurrera egingo du. Lortu nahi den xedea hauxe da: umeak pentsatzea eta erabakitzea nola erabili nahi dituen jostailuak. Horregatik, Waldorf giroan, ohikoak izaten dira egurrezko blokeak, harriak, zintak eta artilezko animaliak, eta horiek guztiak saskietan gordetzen dira. Horrelako jostailuak erabilia, nork bere buruarekin bat egiteko aukera ematen da, oinarri ezin hobe gerora emango den garapen intelektuala sendotzeko.

Jolas librean aritzeko denbora-tarte luzeak eskaintzea

Mugimenduaren eta jolasaren bidez, haurrak bere burua eta ingurua ezagutzen ditu. Naturan jolastearekin batera, bertan gertatzen dena eta urtaroez eragindako aldaketak modu biziagoan bizi izaten ditu. Ohiko bizimoduaren ezaugarrien arabera, haurrari ez zaio uzten hareaz zikintzen edo makilekin jolasten. Ekintza horiek egiten uzten ez bazaio, ez du bere buruarekiko eta inguruarekiko lotura sendotuko; hau da, berezkoa duen esploratzeko interesa desagertzen joango da. Gainera, ingurunea kaltegarria dela ere barneratuko du haurrak. Jolasteko eta ingurua berez esperimendatzeko aukera ematen ez bazaio, haurra mesfidati eta zalantzati haziko da.

Bilgune guztietan kandela piztea

Gosaria, hamaiketako edo ipuina kontatzeko bilgunetan, kandela pitz daiteke. Erritu horrek komunikazioan eta batasunean bat egiteko balio du. Kandela pizteko ekintza eguneko arduradunak betetzen du, unea lasai hasteko.

Kandela mahaian kokatzen denean, plater edo oihal handi baten gainean jar daiteke. Urtaroaren arabera, kandelaren forma, tamaina edo kolorea aldatzeko aukera ere eman daiteke.

Talde osoak parte hartzen du espazioaren mantentze-lanetan

Oso garrantzitsua da haurrari ekintzetan parte hartzen uztea, autonomia eta laguntzeko interesa pizten baitzaio. Ez dago azalpen luze eta zehatzak emateko beharizanik, haurrak

imitaziorako gaitasun handia du, eta heldua imitatuz ikasiko du. Eskuekin lan egiteak motrizitatean eta adimenean laguntzen du, eta ekintza horiek egunero egiterik badago: mahaia garbitzea, erabilitako materialak garbitzea, komuna jasotzea, erratza pasatzea...

Artelanak egiteko materiala naturala izatea

Artea lantzeko modu asko daude. Ur-margoekin margotzea edo plastilina manipulatzeko aukera ona da, sormena indartzeko forma eta kolore anitzekin esperimentatzen baita.

Waldorf eskoletan erabiltzen diren ur-margoak Stockmar markakoak dira; naturalak izateaz gain, pigmentazio maila handia dute, eta beraiekin margotzea esperientzia aparta da.

Plastilinari dagokionez, etxean sortzea ekintza polita izan daiteke. Hau da errezeta:

1. Bota bol batean:

-bi baso bete irin.

- $\frac{3}{4}$ baso gatz.

- $\frac{1}{2}$ baso ur.

-bi koilarakada olio.

2. Ondo nahastu pikorrak kendu arte.

3. Bukatzeko, jangarria den koloratzailea bota eta nahastu berriro.

Urtaroen Waldorf mahaia erabiltzea

Waldorf pedagogiak garrantzi handia ematen dio naturarekiko lotura transmititzeari. Horregatik, haurrak urtarotetan ematen diren aldaketak hobeto ikus eta uler ditzan, urtaroen mahaia erabiltzen da. Ikasgelako sarreran edo etxeko sarreran jar daiteke. Umeak ikusteko, ukitzeko, imajinatzeko, amets egiteko... erabiliko du. Mahaia urtaroarekin batera aldatzen da; horrela, haurra berez konturatuko da naturan ematen diren aldaketez.

Urtaroen mahaia haurrak aurkitutako altxorak izaten ditu: pinaburuak, harriak, adarrak, loreak, hostoak, maskorrak, fruituak edo berak sortutako elementuak (artilez, feltroz edo egurrez egindako animaliak...).

Waldorf/Montessori egutegia

Urtaroen erritmo eta egunei aurre egiteko modua aldatu egiten da, bai barrutik, bai kanpotik. Adibidez, ez gara berdin jaikitzen larunbatetan edo astelehenetan, eta ez ditugu gauza berak egiten udan edo negu gorrian.

Haurrak ere bizitzen ditu urteko erritmo ezberdinak, baina horiek uler ditzan eta ahalik eta bizimodu naturalen eta kontzienteena egin dezan, lagundu egin behar diogu. Urtea zer den ulertu behar du, zenbat hil dituen, zer gertatzen den urtean zehar, zenbat egun pasatu behar duten ospakizun garrantzitsu batera heltzeko...

Eskolan, gauza horiek guztiak, gehienetan, ohiko egutegi handiaren bidez irakasten zaizkio haurrari. Bizi garen hileko eguna markatzen da, eguzkitxo edo lainoa jartzen da... Baina hori haurrarentzat ez da esanguratsua, egunero landu beharreko ekintza mekaniko soila baino. Hileko egunen zenbaki guztiak ikusteak ez dio umeari denboran kokatzen laguntzen, oso abstraktua da harentzat.

Guztia modu esanguratsuan lantzeko, Maria Montessorik sortutako egutegia erabil daiteke, gainera Waldorf pedagogiarako ere moldatuta dago. Beraz, haurrak ikusiz eta manipulaturik hilek eta urteak nola egiten duten aurrera ulertzen du. Urtean zehar ematen diren aldaketak modu esanguratsua bereganatzen laguntzen du, urtaroak nahiz egun bereziak bizi dituelako (kandela edo bestelako figurak jar daitezke egun berezia dela islatzeko).

Badago aukera egutegia sortzeko kartoi, feltro edo egurrarekin. Esteka hauetan salgai dago:

<http://www.jugarijugar.com/es/lineas-pedagogicas/2166-calendario-anual-waldorf-montessori.html>

http://veobio.es/tienda/grimms/485-calendario-anual-de-madera.html?search_query=calendario&results=2

3.2. MONTESSORI

Maria Montessorik sortutako pedagogiak eskola -nahiz familia- giroan erraz aplikatu daitezkeen ezaugarriak ditu:

Espazioa egoki antolatzea

Umeari eskaini behar zaion espazioak sinplea, harmonikoa eta distrazio gutxikoa izan behar du. Objektuak apaletan egongo dira umearengan ordena sustatzeko. Kanpoko ordenak barneko ordena sustatzen du (pentsamendua). Eskolan garrantzitsua da banan-banan lan egiteko zenbait eremu izatea. Espazio horietatik askatasunez eta modu autonomoan mugitu ahal izango da haurra. Etxean ere, haurraren logelaren antolakuntzak ordena eta autonomia bermatu behar ditu. Haurraren logelak nolakoa izan behar duen erakusten dute honako esteka hauek:

<http://mmontessori2013.blogspot.com.es/2013/03/habitaciones-montessori-desde-el.html>

<http://webcache.googleusercontent.com/search?q=cache:75SYnZCtoWkJ:ahorasoymama.com/7-ideas-montessori-para-decorar-una-habitacion-infantil/+&cd=6&hl=es&ct=clnk&gl=es>

Montessori pedagogian oinarritutako oheak saltzen dira. Zoruairean gainean jartzen dira, haurrak sartzeko eta ateratzeko aukera eta autonomia izan dezan.

<http://www.maderistica.cl/#!cama-montessori/c24co>

<http://store.woodly.it/cama-montessori-esp.html>

<http://www.woomo.es/product/woomo-child-bed>

Bana-banako ongietorria eta agurra egitea

Harreran, tartetxo bat eskaini behar zaio ume bakoitzari ongietorria egiteko. Umea onartua sentituko da, eta informazio-iturri da irakaslearentzat (triste, kezkatuta edo pozik datorren...). Berdin jokatu da agurra egitean.

Etxean ere, oso garrantzitsua da banakako erritual horiek egitea, are garrantzitsuago haurrarekin senide gehiago baldin badaude (anai-arrebak, lehengusu-lehengusinak...).

Giroari gozotasuna ematea

Elementu naturalak egotea garrantzitsua da, goxotasuna ematen baitio espazioari: landareak, argazkiak eskegitzeko kordelak, oinetako erosoak janzteko egurrezko bankua, portzelanazko eta egurrezko ontziteria, besteak beste.

Bakearen mahaia erabiltzea

Montessori pedagogiaren curriculumean, bake-hezkuntzak garrantzi handia hartzen du. Horren harira, gelan mahaiz eta aulkiz osatutako txoko bat osatzen da. Mahaiaren gainean bakearen sinboloa jartzen da (maskor polit bat, perla bat, mineral bat...), loreak, margotutako harriak, aire freskagarriak... eta erlaxazioa sustatzen duen edozer. Hiru minutuko iraupena duen harea-erlojua ere jarriko da, hitz egiteko txanda errespetatzeko. Kanpaitxo txiki bat erabiliko da, akordio batera heltzen direnean jotzeko. Bake-txokoaren antolaketan eta apainketan denek parte hartzen dute.

Gelakideen artean sortzen diren gatazkak, haserrealdiak eta tristeziak kudeatzeko erabiliko da; horregatik, txoko horren erabilera bana-banakoa, bikotekakoa edo taldekakoa izango da. Bakearen mahaira joatea aukerakoa izango da, eta umeek oso argi izan behar dute zer arautegi errespetatu behar den:

-Biren arteko gatazka bada, hitza duenak sinboloa hartu eta buelta emango dio harea-erlojuari. Sentimenduak adieraziko ditu, aurrean daukanari errurik leporatu gabe (“Txarto sentitzen naiz zuk... -lako), eta ez (“Zuk jo nauzu...”). Bitartean, aurrean dagoen umeak entzun egingo du, hitz egin barik.

- Hitz egiteko denbora agortutakoan, bake-sinboloa eta hitza, lagunari emango zaio.

- Akordio batera heldutakoan, kanpaitxoak joko dute.

- Helduaren laguntza eska daiteke.

- Gatazka pertsonala denean (haserrealdia, tristezia...), txoko horretara hurbiltzea dute pentsatzeko eta erlaxatzeko.

Haur txikiekin, 2-3 urte bitartekoekin, irakaslearen gidaritza behar izango da une oro. Antzerkitxoak egin daitezke txokoaren erabilera egokia barneratu dezaten.

Txokoaren erabilerak enpatia, ahozko adierazpena, negoziaketa eta inteligentzia emozionala indartzen ditu. Gainera, oso apaindura polita da gelako edota etxeko edozein esparrutarako.

Hamaiketako prestatzen libre uztea

Gelako beste esparru bat antolatuko da haurrek nahi dutenean hamaiketako prestatzeko: tostadak, marmelada, fruta, gazta, infusioak... Goizean ur epelez betetako pitxarra jarriko da infusioak egin ditzaten, baita arriskurik sorrarazten ez duen sukaldeko tresneria ere (edalontziak, platerak, puntarik gabeko aiztoak, zukugailua...). Garbigarriak eta garbitzeko tresnak ere eskura izango dituzte: zoru-garbigailu bustia, erratza eta bilgailua, ur-espraia eta trapuak... Beraz, umeen partaidetza bultzatuko da etxeko zereginetan.

Ikasketa-dorrea garatzea

Montessori filosofian oinarritutako ikasketa-dorreek eguneroko ekintzak gauzatzeko autonomian eragiten dute. Haurrak helduaren behaketa hurbila eta imitazioa egingo du, eta ekintza askotan parte hartuko du, besteak beste, barazkiak mozten, harrikoa egiten... Hona hemen zenbait esteka:

<http://www.woomo.es/product/woomo-child-montessori-learning-tower-table>

<http://www.2eloa.com/ikea-hack-torre-de-aprendizaje-montessori/>

<http://www.montessoriencaja.es/comparativa-escalones-stool-learning-tower-comparison/>

Talde-lana bultzatzea

Noizean behin, haurrari zer ikasi nahi duen erabakitzen utziko diogu. Interesgarria ere bada berari taldeko lankideak aukeratzen uztea. Horrela, enpatia, konfliktoen ebazpena, besteei entzutea edo errespetua landuko dira. Gainera, oso baliabide baliotsua da irakaslearentzat taldean ematen diren harremanak ikusten direlako (nor konpontzen diren ondo eta txarto, nor ez diren onartuak...).

Manipulazioa lantzeko ekintza errazak egitea

Montessorik zioenez, “eskua adimenaren erreminta da”. Motrizitatea lantzen duten ekintzek garrantzi handia dute Haur Hezkuntzako umearen garapenean. Praktikotasun handiko bideoa da honakoa, non material errazekin, hainbat ekintza egiten diren:

<https://www.youtube.com/watch?v=6czRBAwEGSI>

3.3. PIKLER

Emmi Piklerren pedagogia martxan jartzeko zenbait ideia azalduko ditut, horietako batzuk Magda Gerberrek Haur Hezkuntzako metodorako garatu zituenak. Emakume hori Piklerren ikasle hungariarra izan zen.

Haurraren ekintzei arreta osoa eskaintzea

Haurrak helduarengandik jasotzen duen arreta interpretatzen daki. Helduak sortzen dituen arreta-memento horiek ziurtasuna, maitasuna eta errespetua transmititu behar diote haurrari.

Eguneroko ekintzen abiada murriztea

Horrek bakea eta lasaitasuna ematen dio haurrari. Ekintza batetik beste batera azkarregi pasatzeak estresaldia sorrarazten dio irakasleari eta suminkortasuna haurrari.

Haurrari eguneroko ekintzetan konfiantza ematea

Jatorduetan, bainuan eta janzteko unean, errespetuzko mintzaira erabiliz, azaldu egin behar zaio umeari zer egiten ari garen eta zertarako. Une horietan umeak modu aktiboan parte hartzea oso positiboa da.

Haurrak higie-ohituretan berezkoa duen mugimenduari jarraitzea

Pixoihala aldatzean, garbitzean eta janztean haurra eserita edo zutik jartzea komeni da, betiere horretarako prest dagoenean. Barra edo sostengu bat izateak umea ekintzan modu aktiboagoan parte hartzen laguntzen du; gainera, haurraren mugitu beharra ere asetzen du.

“Zurekin” , ez “zuretzat”

Haurrari aukera eman behar zaio ekintzak helduarekin batera egiteko, protagonista aktiboa izateko. Horrela, kooperazio-harremana sortzen da, helduak haurrari laguntzen dio, eta haurrak, aldi berean, helduari. Haurrak jarrera pasiboa hartzen badu, harremanak norabide bakarra izango du; hau da, helduak haurrari lagunduko dio, eta ekintza haurrarentzat soilik izango da.

Mugimendu askea eskaintzea

Garapena egokia izan dadin, haurrak espazio nahikoa izan behar du, eta bertatik bakarrik mugitzeko aukera ere bai. Itzulipurdika aritzeko, narraska aritzeko, esertzeko, gelditzeko eta oinez ibiltzeko aukera izan behar du. Haurrak ekintzak bere kabuz egiten ikasten du, probak egiten, esperimentatzen, zailtasunei aurre egiten... eta ekintzetan izandako arrakastatik poztasuna eta asebetetzea lortuko du.

Etenaldirik gabeko jolasean aritzea

Haurrak ez du guk bera entretenitzerik behar; umea bere kabuz jolasteko gai da. Etenaldirik gabeko jolasak haren munduarekiko independentzia eta nagusitasuna lortzen laguntzen du. Orduan garatzen hasten dira haurraren autoestimua eta konfiantza.

Haurraren seinaleak errespetatzea

Haurrak zerbaiti ezetza ematen badio, haren erabakia aintzat hartu behar da, haurra errespetatu behar da. Batzuetan, ekintza aurrera eramateko prest ez dagoela adierazi nahi izango du (zintz egiteko, aurpegia garbitzeko); segundo batzuk itxarotea nahikoa da saio berria egiteko. Beste batzuetan, ordea, ekintza ez egiteko “ezetz biribila” adierazi nahi izango du (jateko, edateko, gehiago lo egiteko...).

3.4. REGGIO EMILIA

Argi-mahaia Haur Hezkuntzarako baliabide gisa

Aplikazio anitzak eskaintzen ditu argi-mahaiak, eta oso baliabide hezigarria da. Hainbat elementu jar daitezke gainean, horiek konbinatu, eta gorputzetan ematen diren aldaketak ikustea badute umeei. Giro deigarria eta harkorra sortzen da, non umea esperimentazio librearen protagonista den. Ipuinak kontatzen dira silueta, itzal edota orri zeharrargien laguntzaz.

Hona hemen argi-mahaian egindako ipuin erraza eta polita:

<https://www.youtube.com/watch?v=LklUq1hMFOs>

Honako esteka hauek baliabide honen informazioa dakarkigute:

<https://www.youtube.com/watch?v=LklUq1hMFOs>

<https://mimesadeluzbjm.wordpress.com/>

<http://micajondesastreinfantil.blogspot.com.es/2015/05/mesa-de-luz.html?m=1>

<http://ineverycrea.net/comunidad/ineverycrea/recurso/mi-mesa-de-luz-conoce-una-nueva-manera-de-aprender/3692c89a-8a9f-4711-8ec1-de4716dc8b61>

4. ESPERIENTZIA BERRITZAILEAK EUSKAL HERRIAN

4.1. ARABA

◆ MONTESSORI ESKOLA, GASTEIZ

Montessori metodoa lantzen duen eskola pribatua da. Haur Hezkuntzako haurrak hartzen ditu. 2016-2017 ikasturtean Lehen Hezkuntzako umeak ere hartzea dute helburu.

<https://montessorivitoria.wordpress.com/>

◆ GEROA ESKOLA, TROKONIZ

Waldorf pedagogia lantzen duen eskola libre eta pribatua da. 2 urtetik gorako haurrak hartzen ditu.

<http://geroaskola.org/>

<https://vimeo.com/18192471>

◆ PLISTI-PLASTA HEZIKETA-ESPAZIOA NATURAN, OZAETA

Plisti-Plasta 2 eta 6 urte bitarteko haurrei naturan jolasteko aukera ematen dien proiektua da, eta Europa iparraldeko baso-eskoletako pedagogian dago oinarrituta. Haren filosofiak haurraren garapen naturala, benetako beharrak eta naturarekiko harremanak ezinbestekotzat jotzen ditu.

<https://plistiplastanaturan.wordpress.com/>

http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2012/11/07/213991.php

<http://actualidadpedagogica.com/modelos-educativos-alternativos-ii-bosquescuela-y-las-escuelas-en-el-medio-natural/>

http://bosquescuela.com/wp-content/uploads/2012/01/Art%C3%ADculo_Escuelas-infantiles-al-aire-libre_Cuadernos-de-Pedagog%C3%ADa1.pdf

◆ SORGINGANE HAUR-ESKOLA, IZARRA

0-2 urte bitarteko haurrak hartzen ditu. Pikler pedagogian oinarritzen da.

<http://www.haurreskolak.eus/centro?id=183>

◆ GUTXINAKA-GUTXINAKA, GASTEIZ

Bat-bateko jolasaren alde egiten du. Adin guztietako jendeari zuzenduta dago. Hainbat tailer eta ekintza eskaintzen ditu, baita gurasoek haurrarekin batera egitekoak ere. Pertsona bakoitzaren erritmo eta beharrak kontuan hartzen ditu beti. Heziketari buruzko hitzaldiak ere ematen dituzte.

<http://www.gutxinaka-gutxinaka.com/index.html>

◆ CEIP OKONDO, OKONDO

Amara Berri metodoa lantzen duen eskola publikoa da. Proiektuka egiten da lan, testu-libururik gabe. Aurten (2015-2016 ikasturtea) Lehen Hezkuntzako haurrekin ere hasi dira lanean.

<http://www.okondoeskola.hezkuntza.net/web/guest>

<http://www.amaraberrisarea.hezkuntza.net/web/guest>

◆ ETXAURREN IKASTOLA, ZUHATZA-AIARA

Amara Berri metodoa lantzen duen eskola publikoa da. Proiektuka egiten da lan, testu-libururik gabe. 2 urtetik gorako haurrak hartzen ditu.

<http://etxaurren.ikastetxea.net/ab/index>

<http://www.amaraberrisarea.hezkuntza.net/web/guest>

4.2. BIZKAIA

◆ XIXUPIKA SLOW CENTER, BILBO

Jolasa eta gorputzeko mugimendu librea garatzeko eskola aktiboa da. Haurrari, garapen egokia izateko, behar duen denbora eta lasaitasuna ematea ezinbestekotzat jotzen du. Hurrei eta familiei bideratutako tailerrak eta eginkizunak eskaintzen ditu.

<http://www.xixupika.com/>

◆ MARA-MARA ESKOLA, BERANGO

Eskola librea da (zehazteke oraindik izaera pribatua edo kontzertatua izango duen). Haur Hezkuntzako haurrak hartzen ditu, baina beste maila batzuk ere izatea du helburu: Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta tailerrak (lanbideak ikasteko guneak).

Nagusien heziketarako gunea ere izan nahi du (eskolako umeen gurasoentzat, interesa duten helduentzat edota komunitateko beste edozeinentzat).

Eskola legala izatea du helburu. Hezkuntza kontzientea eta autodidaktikoa aldarrikatzen dute pedagogikoki.

<http://mara-mara.com/escolar/>

◆ CASA WALDORF MIRARI, MUNGIA

Waldorf pedagogia lantzen duen eskola pribatua da. 3 eta 6 urte bitarteko haurrak hartzen ditu.

<https://www.facebook.com/JardinInfantilWaldorfMirari>

<http://reevo.org/columna/donde-todos-volvemos-a-ser-ninos/>

◆ DIRAYA, BILBO

Ikasteko prozesu naturalaren alde egiten duen gunea da. Tailerrak eta ekintzak adin guztietako pertsoneri egoten dira zuzenduta. Prestakuntza-ikastarok ere eskaintzen dituzte.

<http://dirayaexpresion.es/>

◆ LA BRÚJULA DE LEONARDO, TRAPAGARAN

Eskola alternatiboa sortzeko asmoa duen familia-elkartea da.

<http://labrujuladeleonardo.org/>

◆ MEDEA KREATIBITATEA ERAIKIZ, BILBO

Artea, naturarekiko harremana eta jolas librea lantzen dituen gunea da. 2-7 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, beti garapen naturalean oinarrituta.

<http://medeakreatibitateeraikiz.blogspot.com.es/>

4.3. GIPUZKOA

◆ IZAR KABI ETXEA, ANDOAIN

Pikler, Montessori eta Waldorf metodologietan oinarritzen da.

<https://www.facebook.com/kabietxeakgipuzkoa/>

◆ AMARA BERRI CEIP, DONOSTIA

Amara Berri sistema lantzen duen eskola publikoa da. Proiektuka lan egiten da, ikaslibururik gabe. 2-12 urte bitarteko haurrak hartzen ditu.

<http://amaraberri.org/ab/index>

<http://www.amaraberrisarea.hezkuntza.net/web/guest>

<http://blogs.elpais.com/escuelas-en-red/2015/09/sistema-amara-berri.html>

◆ ORENDAINGO BASO-ESKOLA, ORENDAIN

Baso-eskoletako pedagogian oinarritutako proiektua da.

<http://ataria.info/orendain/1422386274386>

http://www.consumer.es/web/es/medio_ambiente/urbano/2012/11/07/213991.php

<http://actualidadpedagogica.com/modelos-educativos-alternativos-ii-bosquescuela-y-las-escuelas-en-el-medio-natural/>

http://bosquescuela.com/wp-content/uploads/2012/01/Art%C3%ADculo_Escuelas-infantiles-al-aire-libre_Cuadernos-de-Pedagog%C3%ADa1.pdf

4.4. NAFARROA

◆ TXIMELETA ESKOLA, IRUÑA

Euskal Herriko eskola libre zaharrena da. Summerhillen, Pestalozzi eskolan eta Montessori metodoan oinarritzen da, besteak beste. 2-12 urte bitarteko haurrak hartzen ditu.

<http://www.tximeleta.org/>

◆ KATTUKA HAUR-ESKOLA, ARBIZU

0-3 urte bitarteko haurrak hartzen ditu. Reggio Emiliako ereduan nahiz Emmi Pikler pedagogian oinarritzen da.

<http://kattuka.com/>

<https://vimeo.com/121822786>

◆ AMALUR, ARAKIL BAILARA

2 urtetik gorako haurrak hartzen dituen Montessori eskola pribatua da.

<https://amalurescuela.wordpress.com/>

◆ **CREARTE NAVARRA, IRUÑA**

2 urtetik gorako hurrei zuzendutako gunea da. Wild eta Montessori pedagogietan oinarritzen da.

<http://creartenavarra.blogspot.com.es/p/quienes-somos.html>

<https://youtu.be/c1DafyFg4fI>

◆ **NIÑ@S EN MI CASITA, BARAÑAIN**

0-3 urte bitarteko haurrak hartzen dituen etxea da. Montessori, Waldorf eta, batez ere, Pikler pedagogietan oinarritzen da.

<http://www.patriciavalle.es/ni%C3%B1s-en-mi-casita>

◆ **WALDORF NAVARRA, IRUÑA**

Waldorf pedagogia lantzen duen eskola da. Haur eta Lehen Hezkuntza ditu.

<http://www.waldorfnavarra.es/>

◆ **IZARBIDE, TIERRA ESTELLA**

Waldorf pedagogian oinarritutako elkarte da. Adin guztietako haurrak hartzen ditu eta horretaz gain, tailerrak, hitzaldiak eta hainbat ekintza eskaintzen ditu.

<http://www.escuelawaldorfizarbide.blogspot.com.es/p/quienes-somos.html>

◆ **UR TANTA, ILTZARBE**

3-14 urte bitarteko haurrak hartzen dituen eskola librea da. Heziketa prozesuan haurraren garapen naturala aintzat hartzea, bakoitzaren beharrak zaintzea eta inguruarekiko harremanak izatea ezinbestekotzat jotzen du.

<http://eskola.urtanta.net/nosotros/>

5. AZKEN ONDORIOAK

Lanak argi utzi du eskola alternatiboaren helburu nagusiak zein diren: haurrak autonomia eta iniziatiba izatea; berezko jakin-mina sustatzea; pertsona libreak, autodidaktak eta sortzaileak lortzea. Ez dago alde nabarmenik ohiko hezkuntza-sistemak izan ditzakeen helburuekin. Baina gehienetan, paperean idazten den horretatik eskola-praktikan egiten den horretara jauzi nabarmena egon ohi da.

Aintzat hartu behar dugu haurrak berezkoa duela ikasteko grina; hortaz, ez zaio zertan ezer irakatsi. Irakasleok jarrera aldatu behar dugu, eta pentsatu guk irakatsiko diogun horrek ez diola haurrari ezertarako balioko. Izan ere, benetan balioko diona berak ikasiko du, bizitzan zentzua duena ikasten baitugu. Gauzak horrela, haurra loratzen utziko dugu, ez dizkiogu gauzak emango eta zer egin behar duen esango, poliki-poliki, maitasunez hazten utziko dugu.

Lanean hainbat pedagogia aurkeztu dira, baina helburua ez da horietariko bat aukeratu eta martxan jartzea. Ez dago pedagogia hobea edo bakarra, ez dago zertan pedagogia bat hartu eta bete betean jarraitu. Irakasle bakoitzak haren ingurura, egoerara egokitu beharko du pedagogia batek zein besteek diotena. Pedagogia onena egoerari eta haurren beharrei egokitzen dena izango da. Eskoletan aldaketa xumeak egin daitezke: eguneroko dinamikaren antolaketan, hezitzailearen eta ikaslearen arteko harremanean, haurrarekiko begiradan... Hezitzaileak bere buruari begiratzen jakiteak ere sekulako garrantzia du: jarrera zaintzea, heziketaren ildo berraztertzea...

Hezkuntzaren inguruko gogoeta sakonak egiteko premian gaude, hezkuntzari zentzu eta ildo berria emateko. Hona hemen gogoeta eragiteko bideo laburra:

http://www.dailymotion.com/video/x14zoq1_bailamos_shortfilms

6. BALIABIDE GOMENDAGARRIAK: LIBURUAK

WEBGUNEAK ETA

Materialak:

- ◆ <http://www.jugarijugar.com/es/40-lineas-pedagogicas>
- ◆ <http://jaisaeducativos.net/>
- ◆ <http://www.veobio.es/>
- ◆ <http://www.woomo.es/>
- ◆ <http://www.hoptoys.es/>
- ◆ <http://www.alupe.es/>
- ◆ <http://www.loralora.com/>
- ◆ <http://www.babycaprichos.com/>
- ◆ <http://www.hullitoys.com/>
- ◆ <http://www.montessorivivo.com/es/>
- ◆ <http://www.montessoriparatodos.es/>

Webgune interesgarriak:

- ◆ <http://www.piklerloczy.org/eu>
- ◆ <http://www.educacionprohibida.com/>
- ◆ <http://www.montessoriacasa.es/>
- ◆ <http://paramipequeconamor.blogspot.com.es/>
- ◆ <http://www.creciendoconmontessori.com/>
- ◆ <http://experienciasdeunamadrepikler.blogspot.com.es/>
- ◆ <http://www.escuelainfantilreggio.com/>
- ◆ <http://reevo.org/>
- ◆ <http://aprenderlachispa.com/>

Liburuak:

- ◆ PIKLER, Emmi: *Moverse en libertad*, Narcea, 1984.
- ◆ JOVE, Rosa: *La crianza feliz. Cómo cuidar y entender a tu hijo de 0 a 6 años*, La esfera de los libros, 2009.
- ◆ REICHERT, Evania: *Infancia, la edad sagrada*, La llave, 2011.
- ◆ BALDWIN DANCY, Rahima: *Usted es el primer profesor de su hijo*, Medici, 2006.
- ◆ PITAMIC, Maja: *Enséñame a hacerlo sin tu ayuda*, Gaia, 2015.
- ◆ MALAGUZZI, Loris: *La Educación Infantil en Reggio Emilia*, Octaedro, 2001.

7. BIBLIOGRAFIA

- ◆ MONTESSORI, María: *Ideas generales sobre el método. Manual práctico*, Cepe, Ciencias de la Educación Preescolar y Especial, 2014.
- ◆ MALAGUZZI, Loris: *La Educación Infantil en Reggio Emilia*, Octaedro, 2001.
- ◆ FABRES, Montse: “Emmi Pikler (II). Jatorduetako zaintza”, in *Hik Hasi* 148, 2010, 8-15.
- ◆ Erredakzio Taldea: “Waldorf eskolak. Haurren garapen naturala”, in *Hik Hasi* 107, 2006, 8-15.
- ◆ Erredakzio Taldea: “Modenako (Italia) 0-6 urteko udal haur eskolak Europan eredu”, in *Hik Hasi* 88, 2004, 32-33.
- ◆ Erredakzio Taldea: “Eskola alternatiboak. Injerentziarik gabeko hezkuntzaren bila”, in *Hik Hasi* 185, 2014, 10-19.
- ◆ LOPEZ-GOÑI, Irene; URIBE-ETXEBARRIA, Arantxa: *Pedagogo sortzaileak*, 17. Monografikoa, *Hik Hasi*, Donostia, 2005.
- ◆ <https://eskolaktiboa.wordpress.com/>
- ◆ <http://ludus.org.es/es>
- ◆ <http://wiki.educadorasdeinfantil.es/>
- ◆ <http://www.oei.es/index.php>
- ◆ <http://ineverycrea.net/comunidad/ineverycrea>
- ◆ <http://bellellieducacion.com/>